

Euskal Herriko zinemagintzaren oinarri ekonomikoak



P A T X I A Z P I L L A G A



euskal Herriko zinemagintzak egoera ekonomiko ezberdinak bizi izan ditu bere historia laburrean zehar. Oparagoak batzuk, larriagoak besteak, betiere bere inguruan antolatutako babes eta sustapen sistemaren funtzioan. Hori ez da hemengo zinemagintzaren ezau-garria bakarrik, Europako zinemagintza guztiarena baizik. Aspalditik gainera, nahiz eta azken urteotan larriagoa egin den babes beharra. Izan ere hain da gogorra AEBetako enpresa eta zinemaren lehiakortasuna ezen merkatu baldintza normaletan Europako zinemagile eta produkzio-etxeek ez bailukete haien aurrean jokatzeko aukerarik ere izango. Hartara, «kultur salbuespen» edo «kultur aniztasunaren» izenean, Estatu guztiak euren zinemagintza babestu eta sustatzeko mekanismoak ezarri dituzte, oso konplexuak eta zehatzak batzuetan, sinpleagoak eta mugatuagoak bestetan, bakoitzak zinemari eskaintzen dion garrantzi estrategikoaren arabera bere kultur sistemaren baitan. Europar instituzioek eurek ere bide beretik jo dute azkenaldian, europar zinema babesteko sistema osagarriak ezarriz Estatuoen gainera. Ondorioz, babes eta sustapen mekanismoak dira gaur egun Europako ekonomia zinematografi-koaren ardatza. Haiek gabe ez litzateke gaur zinemagintzarik existituko European. Horrek esan nahi du, halaber,

► **Patxi Azpillaga** EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea da.

ezinezkoa dela gaur Europako zinemagintzan norbait izatea babes eta sustapen sistema indartsu bat izan gabe. Eta horrek berdin balio du Estatu batentzat zein gurea bezalako Estaturik gabeko nazio batentzat.

Horrela, bada, iragan hurbilera begira jarrita, hirualdi nagusi bereizi ahal dira Euskal Herriko zinemagintzaren ibilbidean. Lehena, laurogeiko hamarkadakoa, zeinean seguruenik urterik oparoenak bizi izan zituzten Euskal Herriko ekoizle eta zinemagile berriek. Urte haietan gogo eta ekimen handiak zeuden Euskal Herrian zinema egiteko; eta borondate hari, enpresa egitura handi baten jabe izan gabe ere, filmak egiteko beharrezko kapitala modu nahiko errazean biltzeko aukera batu zitzaion. Hartara, posible izan zen urtez urte produkzio maila handitzea eta lehenengo aldiz Euskal Herriko historian zinema-ekoizpen profesional edo komertzialeko jarduera esanguratsua eta egonkorra izatea, «euskal zinemaren» markapean ezaguna egin zena espainiar Estatu osoan, bai eta atzerrian ere. Gutxi irauin zuen, ordea, aldi hark, bai Madrilen bai Euskadin aldatu egin baitziren zinemagintza sustatu eta diru laguntzak emateko moduak. Aldaketarekin zailago jarri zen Madrildik proiektuetarako kapitala lortzea; eta Euskadin ere, zinemagintzaren inguruko ikuspegi estrategiko baten faltan, interes puntualak eta, askotan, baita pertsonalak ere gailendu zitzaizkion arloaren planifikazio eta antolamendu beharrari. Haustura garaiak etorri ziren orduan Euskal Herriko zinemagintzaren mundura, batez ere Administrazioaren eta zinemagileen artean, eta «euskal zinemaren» markako hainbat izen esanguratsu Euskal Herritik kanpo hasi ziren eta jarri ziren lanean, enpresa egitura sendoa -goen edo lanerako giro egokiago baten babesean. Hartara, norabide argirik gabeko babes sistema batekin eta berezko enpresa egitura indartsurik gabe ere —izan ere ETBk, lehenengo urteak eta gero, ezer gutxi jakin nahi izan baitzuen denbora batean Euskal Herriko zinemarekin—, murriztuz joan zen Euskal Herriko zinema produkzioa. Ondorioz, sortuz joan ziren egile berriek eta baita lantalde tekniko eta artistiko askok ere Euskal Herritik kanpo garatu behar

izan zituzten euren ibilbide profesionalak. «Euskal zinemaren» marka bera, zeinari oraindik atxikitzen zitzaizkion Euskal Herritik kanpo ari ziren zenbait ekoizle eta egile ere, pixkanaka-pixkanaka urtuz joan zen, gaitasunik gabe espainiar Estatuan azken urteotan egin den zinema produkzioaren baitan *corpus* berezi bat izendatzeko. Eusko Jaurlaritzak babes sistema berbideratzeko ahaleginak egin ditu 96tik aurrera. Ez ordea, antza, behar adineko indar eta baliabideekin: zinema produkzioa diruz laguntzeko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua murriztu egin zen; eta ETB ere, nahiz eta euskal ekoizleen elkartearekin elkarlanerako hitzarmena sinatu 2000-2002 tarterako, ez da hurbildu ere egin ez urte horietan ezta gerora ere legeak agintzen dion dirusarren %5 zinemagintzan inbertitzea betetzera.

Horra hor, labur-laburrean, Euskal Herriko zinemagintzaren azken hogeitahogeita bost urteotako ekonomi-oinarrien ibilbidea. Gorabehera handikoa, ez da sortu jardue- ra zinematografiko propioa garatzeko moduko ez enpresa- ehun sendorik, ezta ganorazko instituzionalizaziorik edo babes eta sustapen sistemarik ere. Ibilbide honetan, gainera, euskarazko zinema ez da ia existitu ere egin, ez bada hau errentzat egindako animaziozko filmetan edo film laburren eremuan. Euskarak ez du lekurik izan «euskal zinemaren» marka eta egituraren baitan, zeina, diruak hala aginduta, Espainiako merkatuari begira jarri eta antolatu baita neurri handi batean.

Politika ildo berriak proposatu ditu orain Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herrian ikus-entzunezko industria konpetitiboago bat eraikitzeko asmoarekin. Horretarako Ikus-entzunezkoaren Liburu Zuria egin da, eta horren harira instituzio- eta finantza-tresna berriak ezarri dira. Eskema berri honetan euskal zinemak orain arte ez bezalako aipamenak jaso ditu, eta horren ondorio dira gaur egun egiten ari den edo egitekoak diren *Aupa Etxebeste* eta *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* euskarazko film luzeak. Nafarroako Gobernuak ere zinemagintza sustatzeko diru laguntza hornitua- goak eskaini ditu aurtun, film luzeen produkzioa laguntzeko. Euskal Herriko zinemaren susperraldi berri bat eka-

rriko ote dute neurri hauek guztiek? Euskaraz hitz egiten hasiko ote da azkenean «cine vasco»-a?

Egin dezagun orain artekoaren azterketa zehatzagoa, ea hortik galderak erantzuteko moduko argibiderik atera dezakegun.

«Euskal Zinema» 80etan

Ekimen sozialetik diru laguntzetara

Hastapenetako euskal zinemagintza garaikidea, Larruquet, Basterretxea, Ezeiza eta gisakoen itzalean egin zena, ez zen merkatuari begira jarritako jarduera izan. Ekimen batez ere kulturala eta soziopolitikoak izaki, haren ekonomia ere berezia izan zen, jendearen ekarpenek (*Ama Lur*), fundazioek (Ikuska) edo egileek eta euren ingurukoek (labur gehienak) finantzatu baitzituzten produkzioak. Filmek banaketak eta erakusketak ere bide bereziak jarraitu zituzten gehienetan, zirkuitu komertzialetatik baino jaialdien eta ekimen sozialen bidez heldu baitziren jendearengana. Horrek guztiak ez zuen industria egitura sendorik sortu baina bai lagundu zuen kulturgintza arloko hainbat jenderen arteko harremanak trinkotzeko, zinema egiten ikasteko, teknikari multzo esanguratsu bat prestatzeko, ikasitako esperientziak konpartitzeko eta zinema egiteko borondate argi bat hedatzeko. Baita Euskal Herriko jendearen artean gogoia piztu eta zabaltzeko ere bertan egindako eta bertako errealitateari buruz jardungo zuen zinema ikusteko. Nola-bait esateko, zinemaren inguruan kapital sozial berezi bat joan zen osatuz urte horietan guztietan, hain zuzen ere, oso oinarri produktiboa izango zena urte batzuk geroago zinema komertzialaren garapenerako.

Izan ere laurogeiko lehen urteetan gertatu zen euskal zinema komertzialaren garapena ordura arte egindako zinemaren antzeko ildoei jarraituko zieten filmekin gertatu zen, *El proceso de Burgos*, *La fuga de Segovia* edo *La muerte de Mikel* bezalakoekin hain zuzen. Zinema areto komertzialetan banatu eta erakusteko eginak izanagatik ere, hasierako

film haien ekonomia ez zen gehiegi bereiziko aurreko aldi-ko filmenetatik. Zineman inbertituko zuten enpresa sendo edo finantza instituzioen faltan, finantzabideak lortzea lehen bezain arazo larria izaten jarraituko zuen produkzio-etxeentzat, aldaketa txiki batekin: Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak. Hain zuzen ere, 1981.ean gobernu autonomiko eratu berriak *La fuga de Segovia*-ren ekoizpena laguntzea erabaki zuen eta hurrengo bi urtetan ere laguntzak luzatu zizkien Euskal Herrian egindako produkzioei (zehazki, *Akelame*, *Erreporteak*, *La muerte de Mikel* eta *La conquista de Albania* filmei). Laguntza haiek guztiz urgentziazkoak izan ziren eta diskrezionalak, ez baitzen ez arauketarik ez deialdi publikorik egin; eta kopuruan handiak izan ez baziren ere (orduko hamar milioi pezeta inguru, 60.000 euro, eman baitzitzaion film bakoitzari), nekez konpentsatzen zituztenak Euskal Herrian ekoizteak zekartzan kostu gehigarriak, instituzioen borondatea erakusten zuten, gutxienez, Euskal Herrian zinema egin zedin. Hartara, esan daiteke urte haietan Euskal Herrian batez ere zinema egiteko kapital sozialaren metatzea eta sareak estutzea gertatu zela. Kapital ekonomikoa geroago etorriko zen eta emaitza Euskal Herriko zinemagintzaren susperraldi entzutetsua izango da.

Diru laguntzetatik Euskalmediara

Euskal Herriko zinemagintzaren ekonomi oinarrien aldaketa 1984an etorri zen, bi aldetik gainera. Espainian aukeratu berria zen gobernu sozialistak astindu on bat eman nahi zion Estatuan egiten ari zen zinemari. Haize berriak nahi zituen zinemagintzan, zinema modernoagoa, duinagoa eta kanpoan erakusteko modukoa. Asmo horrekin goitik behera aldatu zuen indarrean zegoen sustapen sistema, oso urria orduan eta filmek takilan lortutako diruaren ehuneko txiki batean gauzatzen zena. Sistema berriaren ardatza aurreratutako diru laguntzak izango ziren, teoriarik ez zuten filmek estreinatuta eta gero lortuko zuten takilaren arabera legezkiekeen diru laguntzen aurrerapena izango zena, baina errealitatean proiektuen gaineko diru laguntza diskrezionala bihurtu zena. Kapital sarrera garantzit-

sua gertatu zen horrela Estatuko zinemagintzan. Diru-aurrerapenak handiak ziren —adibidez, 1984.ean *Tasio* egiteko orduko 50 milioi pezeta jaso zituen Elias Querejetak Espainiako Kultura Ministerioko ICAAtik (Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales)—; eta haiek eskuratzeko, enpresa egitura sendoa izatea baino, garrantzitsuagoa zen Kultura Ministerioko Aukeraketa Batzordearen gustukoa izango zen proiektu zinematografikoa izatea esku artean..., eta Euskal Herrian proiektuak ez ziren falta orduan... ezta dirua ere.


Izan ere, Eusko Jaurlaritzak aurreko urteetan eman-dako diru laguntzak instituzionalizatu eta arautu egin zituen, bai eta nabarmen igo ere haien kopuruak. Zortzi urtez —1984.etik 1991.era— luzatu zituen laguntzak, eta haien ezaugarri garrantzitsua izan zen behartu egiten zirela onuradunak filmaren grabaketa Euskadin bertan burutzer eta ordainketen %75 gutxienez (aktore nagusiak kenduta) Euskadin egoitza edo bizilekua izango zuten pertsona eta enpresei egitera, baldintza hauek produkzioa Euskadira lotzea zutelarik helburu. Euskarara bikoiztutako bertsio bat egitera ere behartzen ziren ekoizleak, baina salbuespenak salbuespen, ez zen inoiz haien banaketa komertziala modu serioan hartu.

Eusko Jaurlaritzak 1985.etik aurrera, halaber, proiektu zinematografiko zehatz batzuk finantzatzeari ekin zion bere aldetik, hala ETBrekin lankidetzan egin ziren *Zergatik panpox*, *Ehun metro* eta *Hamaseigarrenean aidanez* euskaraz sortutako ordubeteko filmak nola aurrerago *Ander eta Yul* bezalako lan zinematografiko komertzialak.

Azkenik, Euskal Telebistak ere hitzarmena sinatu zuen 1985.ean orduko Euskadiko Zinemagileen elkartearekin (AIPV, Asociación Independiente de Productores Vascos delakoa), zeinaren arabera Euskal Telebistak AIPVko produkzio-etxeek egindako filmen antena eta emisio eskubideak erosteko baldintzak ezarri zituen. Hurrengo urteetan zenbait filmen antena eskubideak erosi zituen ETBk, eta 1988.ean hitzarmen berri bat sinatu bazuen ere, hura ez zuen bere osotasunean bete eta 1990etik aurrera inbertsioak eten egin zituen.

Hiru oinarri finantzario hauen gainean sekulako bultzada jaso zuen Euskal Herriko zinemagintzak, eske- mak bere horretan jarraitu zuen bitartean fruituak eman zituen modu egonkorrean. Hartara, film laburrak alde batera utzita, zeinen produkzioa Eusko Jaurlaritzak hasie- ratik bultzatu zuen, 60 film luzeren produkzioa lagundu zen diruz modu batera edo bestera 1980.etik 1990.era (aintzat hartuta baita ere telebistarako egindako euskaraz- ko hiru lehen filmak): 34 Eusko Jaurlaritzak, 29 espainiar Estatuko Kultura Ministerioak eta 19 Euskal Telebistak (TVEk ere 5 filmen produkzioan parte hartu zuen); haieta- tik, 5 alde bietatik jasotako subentzioarekin eta ETBren parte hartzearekin egin ziren, beste 5 ETBren parte hartze- rik gabe baina alde bietako diru laguntzekin, 31 Eusko Jaurlaritzarenarekin (8 filmetan baita ETB ere) eta 18 Kul- tura Ministerioarenarekin (3tan ETB).

Diru laguntzen kopuru osoaren aldetik, gorabeherak antzematen dira urtetik urtera bai ICAA bai Eusko Jaurla- ritzaren aldetik ere. Lehenengo kasuan Aukeraketa Batzor- dearen esku dago Euskal Herriko produkzio etxeei lagunt- za ematea edo ez; hortik desberdintasunak. Eusko Jaurla- ritzaren kasuan diferentzien jatorria beste bat da, hain zu- zen ere gobernuaren erabaki diskrezionala proiektu zehatz batzuen produkzioa laguntzeko (aipatutako telebistarako film bereziak 1985.ean edo *Ander eta Yul* filma 1988.ean).



	1. grafikoa: diru laguntzak eta inbertsioak 1981-1990 (eurotan)*		
	ETB	ICAA	EJ (guztira)
1981			60.101,21
1982			189.380,25
1983			182.744,69
1984	78.131,57	991.669,97	484.542,79
1985	616.638,42	991.669,97	1.020.857,34
1986	411.693,29	959.816,33	727.645,35
1987	528.890,65	0	619.042,47
1988	267.450,39	655.103,19	1.173.175,63
1989	336.566,78	625.052,59	519.769,09
1990		661.113,31	585.986,80

Iturria: Eusko Jaurlaritza, ICAA eta EITB. Grafikoko zenbakiak lagundutako proiektu kopurua adierazten dute; Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzetan, film laburrei emandakoak ere sartuta daude (1984.etik aurrera urtean 40 eta 60 mila euro inguru).

* ETBren datuak koprodukzioetan eta antena eskubideen erosketan egindako inbertsioak jasotzen dituzte; euren baitan zinemaz aparte telebistarako beste produkzioarako egindako ekarpenak ere sartuta daude.

Laguntzen batez bestekoa filmeko, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, hasierako 60.000 eurotik (orduko 10 milioi pezeta) hamarraldi amaieran emango dituen 180.000 euro ingururaigaroko da, aipatu salbuespenekin, zeinetan ekarpenak handiagoak izango diren. ICAAREN kasuan ezberdintasun handiak daude film batzuetatik bestetara, baina bere ekarpenak handiagoak izango dira, orokorrean, Eusko Jaurlaritzaren bano: filmeko 100.000 eta 200.000 euroren tartean egongo dira diru laguntza gehienak, baina hainbat hortik gorakoak izango dira.

Baina eredu honek Euskal Herriko zinema produkzioari bultzada handia emateko balio izan bazuen ere, aurretutako subentzioen sistemak eragin negatiboak ere izan zituen Estatuko zinemagintzan. Enpresak ez ziren kapitalizatzen, izan ere, finantzaketa neurri handi batean filma estrinatu aurretik konponduta zegoenez, ez zen emaitza handirik lortu behar izaten takilan inbertsioak amortizatze-ko. Kostuek ere gora egin zuten eta produkzioa modu nabarmenean jaitsi zen. Hori ikusita, Espainiako Kultura Mi-

nisterioak sustapen eredia aldatzea erabaki zuen 1989.ean, eta «hirugarren bidea» deitua izan zen laguntza eredu berri bat ezarri zuen. Eredu berri honen pean, aurreratutako diru laguntza eskatuko ez zuten ekoizleek aukera izango zuten filmak behin estreinatu eta gero egindako inbertsioaren herena diru laguntza moduan jasotzeko baldin eta filmek gutxieneko diru kopuru bat lortzen bazuten takilan. Gutxieneko muga hura hasieran 300.000 eurotan ezarri zen baina handik urte gutxira jaitsi egin zen. Halaber xedatu zen beste administrazio publikoek emandako diru laguntzak ez zirela aintzat hartuko filmaren kostua aitortu eta diru laguntzak esleitzeko orduan.

Gauzak horrela, muga haiek saihesteko aitzakiarekin eta ikusita halaber Euskal Herriko produkzio etxeak ere ez zirela behar bezala kapitalizatzen, Estatuko gobernuak bezala Eusko Jaurlaritzak ere bere politika aldatzea erabaki zuen, diru laguntzen eredutik elkarte publiko berri baten bidezko koprodukzio-inbertsioetara igaroz. Horretarako Euskalmedia elkarte sortu zuen 1990.ean, zeina 1991.ean hasiko den bere lehen lanak egiten, nahiz eta urte horretan, halaber, aurreko urteetako ereduaren arabera diru laguntzak ere emango diren. Gertaera honek Euskal Herriko sektorean ordurako piztuta zegoen haserrea areagotu zuen, izan ere askok ez baitzuten begi onez ikusi administrazioaren sarrera zuzena produkzioaren arloan, batez ere ikusita hura produkzio-etxe beraren eskutik (Igeldo) egiten zuela beti. Administrazioak zinema-produkzioa kontrolatzeko ahalegin gisa salatu zen, eta honek haustura larriak ekarri zituen handik gutxira Euskal Herriko zinemagintzara.

Aldi honen balantze moduan bi gauza azpimarra daitezke: «euskal zinemaren» ekonomia diru laguntza handietan oinarritzen da hasieratik, bai eta Estatu espainiarren batez besteko kostu eta produkzio baldintzetan ere; harekin homologatua da, orduan, produkzio egituretan. Hartara, Euskal Herriko produkzio egoera eta baldintzak aldatzean, haren atal garrantzitsu bat berehala geratuko da harrapatuta Madrildik datozen indar zentripetu gero eta gogorragoen baitan. Horretarako, ordea, bertako ad-

ministrazioaren bultzadatxo ere jasoko dute. Eta hau da azpimarratu daitekeen bigarren elementua: hamarkada honen erdialdetik aurrera gertatutako arrakastarekin batera, Euskal Herriko zinemagintzan metatutako kapital soziala galbidean jartzen da, apurtzen hasten baitira haren inguruan urteetan ehunduz joandako sareak eta loturak. Eta Euskadiko administrazioak bi mailatan du horretan ardura: alde batetik, ez duelako eraikitzen beharrezko instituzio-egitura Euskal Herriko zinemagintzak lortutako mailaren beharrei erantzuteko (produkziorako diru laguntzaz aparte, aholkularitza, finantza-erraztasunak, formakuntza, merkataritza zerbitzuak, produkziorako azpiegitura fisikoak, behar bezalako Filmoteka bat, telebista propioaren behar bezalako integrazio estrategia bat..., alegia, zinemagintzarako taxuzko politika bat) eta kanporako ihesak saihesteko. Bestetik, berak xaxatzen duelako haustura, besteak beste AIPV ordura arte ekoizleen elkarte bakarra zenaren zatiketa bultzatuz (1992.ean sortuko da ADEADE, Asociación de Empresas del Audiovisual de Euskadi). Hain zuzen ere, banaketa izango da bai Eusko Jaurlaritzak, baita gerora ETBk ere, sektorearekin harremanak gestionatzeko modurik kutunenetakoa.


Euskal Herriko zinemagintza 90etan

Euskalmediaren urteak

Euskalmediaren jarduera 1996. arte luzatu zen. Esan bezala 1991.ean indarrean jarraitu zuen Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzetako lehengoko ereduak, nahiz eta Euskalmedia inbertsioak egiten hasi: hurrengo urtetik aurrera, ordea, Euskalmediatik bideratu zuen Jaurlaritzak zinemagintzarako dirutza guztia.

2. grafikoan ikus daitekeen bezala, Euskalmediarekin ez zen produkzio maila jaitsi, ezta zineman inbertitutako dirutza ere. Alderantziz, aurreko urteetako mailari heldu zitzaion. Goitik behera aldatu zen, ordea, jarduteko modua. Izan ere, apurtu egin zen ordura arte arau zen pro-

dukzioa Euskadin egin beharrarekin. Hartara koprodukzio asko Latinoamerikan egindako lanak izan ziren, Igeldoren eskutik, batez ere, asko hango zuzendari eta lantaldeekin: *Dollar mambo*, *La gente de la Universal* dira adibide batzuk. Joera horretan ere eragina izan zuten Donostiako Zinemaldian zenbait urtetan emandako sariak ere egile berrien film onenari, Euskalmedia konprometitu egiten baitzuen haren hurrengo filmaren koprodukzioan parte hartzera. Horrela inbertsioak egin ziren *Langer gang* edo *I went down* izenburuko film ezezagunetan, ez ziotenak ez izenik ezta etekinik ere ekarri Euskalmediari.



2. grafikoa: ICAAren diru laguntzak Euskadiko produkzio-etxeei*, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak eta Euskalmediaren inbertsioak** (eurotan)

	ICAA	Ej-Euskalmedia
1991	811.366,34	1.387.522,30
1992	661.113,31	381.544,73
1993	270.455,45	1.281.955,05
1994	0	1.991.305,76
1995	721.214,53	570.947,56
1996	721.214,53	484.716,26

Iturria: ICAA eta Eusko Jaurlaritza. Zutabeetako zenbakiek urte bakoitzean egin edo lagundutako film luze kopurua adierazten dute.

* Proiektuen arabera aurreratutako subentzioak film luzeak egiteko. ** Orotara.

Bestalde, dibertsifikatu egin zituen inbertsioak. Ez zen bakarrik filmetan inbertitu, luze zein labur. Aitzitik, gidioen garapenean, dokumentaletan eta telesailetan ere jarri zen dirua, *Amaren etxea* edo *Jaun eta jabe* direlarik haietako adibide. Helburua, etekin zuzena lortzea baino produkzio etxeei nahikoa egonkortasun eta dimentsio ematea ei zen... Antzeko jokabidea izan zuen zinemarako beste hainbat inbertsioetan ere, Lanzinemaren hiru filme-ko zerrendan ere parte hartu baitzuen.


Erabaki hauetako asko ez ziren ulertu Euskal Herriko zinemagintzaren sektorean, eta laster ikusi zen gainera jokabide horrekin bertako produkzioa uritzearekin batera hustutzen eta desegituratzen ari zela, hainbat lantaldek eta Euskalmediaren harreman zirkulutik kanpo geratutako produkzio etxeek ere oso zaila baitzuten bertan lan egitea.

Kontua da, orduan, Euskalmediak, bere asmoak izango zirenak izango zirela, ez zuela asmatu ildo argi bat finkatzen Euskal Herriko zinemagintzaren garapenean. Alderantziz, nahaste-borraste hartatik ez zen inongo eragin positiborik atera Euskal Herriko zinemagintzarentzat, ez enpresa egitura aldetik, ez finantzaketa ereduaren aldetik ere. Izan ere, nahiz eta asmoak bestelakoak izan, nazioarteko koprodukzioen esperientzia negargarrien ostean, porrot izugarriak guztiak, lehenagoko eredu berberera itzuli behar izan baitzuen Euskalmediak koprodukzioak aurrera ateratzeko, alegia, bere ekarpenak ICAAren proiektuen gaineko aurreratutako diru laguntzekin bat egitera. Madrilen ezarritako hirugarren bidea handiegi geratzen zitzaizen oraindik Euskadiko produkzio-etxe gehienei. Hain zuzen ere, bide horretatik joko zuten egile eta ekoizle gehienak Madrila joango ziren lanera.

Euskalmedia eta gero

2. grafikoak erakusten duen bezala, Euskalmediaren azken urtean asko jaitsi zen diru inbertsioa Euskal Herriko zinemagintzarentzat, batez ere Euskal administrazioaren partetik. Urte hartan handiagoa izan zen, erruz gainera, ICAAren ekarpena Euskalmediarena baino. Porrota ikusita,

1996an Euskalmedia desegin eta garai bateko dirulaguntza e redura itzuliko da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, alegia, diru laguntzen deialdi publikoetara. Ordea, diru laguntzak murriztuta eta dibertsifikatuta agertuko dira, orain ez baitira bakarrik produkzioarako emango (film luze zein laburretarako), baizik eta gidoiak idazteko eta proiektuak garatzeko ere. Hurrengo urteak nahiko larriak izango dira Euskal Herriko zinemagintzarentzat, baliabide propio nahikorik gabe jarraituko baitu produkzio dinamika esanguratsurik pizteko. Alabaina, bai sektorearen barruko bai administrazioarekiko harremanak berrosatzen hasiko dira, eta hartara posible izango da zatitutako ekoizle elkarteak bakar batean biltzea (IBAIA) eta administrazioarekiko eta baita ETBrekiko elkarrizketak ere berreskuratzea.



3. grafikoa: Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak (guztiak) eta ICAAren proiektuaren gainekoak (eurotan)

	ICAA	EJ
1997	444.748,96	649.093,07
1998	240.404,84	601.012,10
1999	438.738,84	570.961,50
2000	384.647,75	817.376,46
2001	0	817.376,46
2002	440.000,00	817.372,00
2003	630.000,00	1.236.000,00
2004	120.000,00	1.236.000,00


Iturria: Eusko Jaurlaritza, ICAA.

Elkarrizketa horien ondorio izan da diru laguntzak pixkanaka handituz joatea eta ETBekin ere hitzarmena sinatzea 2000-2002 hirurterako, zeinaren bitartez ETB berriz ere Euskal Herriko zinemagintzan inbertitzen hasiko den IBAIAri atxikitako produkzio-etxeen filmen emisio eskubi-deen erosketaren bitartez, hori bai, oso prezio murriztuan.

Baina aurreko aldiekin alderatuta, diru laguntzak antolatzeke sistema egonkortu eta neurri batean baita findu ere egin dela antzeman badaiteke ere (ikus 1. taula), beste alde batetik erraz ikus daiteke kopuru aldetik behintzat atzera ere egin duela baliop errealetan (ikus 4. grafikoa).

1. taula: Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak ikus-entzunezko produkzioari (2003, eurotan)

<i>Mota</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Laguntzak</i>	<i>Guztira</i>
Gidoiak idazteko	3	12.000	36.000
Film laburrak egiteko	12	12.000 (4) eta 9.000 (8)	120.000
Proiektuen garapena	5	12.000	60.000
Animaziozko film luzeak	2	120.000	240.000
Sormen-dokumentalak	4	40.000 (2) eta 20.000 (2)	120.000
Fikziozko film luzeak eta telebistarakoak	5	180.000 (1) eta 120.000 (4)	660.000
Guztira			1.236.000



4. grafikoa: urtez urte Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntza eta inbertsioen bilakaera, haien balioa 2004ra eguneratuta INEren KPIren bilakaera erabiliz.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, INE.

Izan ere, KPIren bilakaera aintzat hartuta, urtez urteko diru laguntzen balioa 2004ra eguneratuta, ikusten da 1984.ean emandako diru laguntzen balioa, alegia, duela hogei urte emandakoena, aurtengoena baino %50 altuagoa zela. Ikusita, bestalde, ICAAren diru laguntzetan gertatu den bilakaera azken urteotan, zeinetan proiektuen gaineko laguntzek desagertzeraz jo duten (2.525.000 euro 2003an, 15 filmen artean banatu zirenak, guztira emandakoa ia 60.000.000 eurotik), nabarmen geratzen da Eusko Jaurlaritzaren babes sistema honen benetako gaitasuna filmen produkzioa suspertzeko oso murriztuta geratu dela.

Beste Autonomia Erkidegoetan ematen diren diru laguntzekin alderatuta ere garbi ikusten da Eusko Jaurlaritzaren sistemaren eraginkortasun galera. Izan ere, EAE oso urrun dago gaur egun haiek erakusten duten mailatik (ikus 2. taula).

2. taula: Autonomia Erkidegoetako diru laguntzak ikus-entzunezko produkzioari (eurotan)

	Valentzia	Euskadi	Catalunya	Galizia
Produkziorako diru laguntza zuzenak	3.834.970	1.236.000	8.490.000	2.400.409

Iturria: IBAIA, Informe de l'Audiovisual de Catalunya txostean aipatua (*Quaderns del CAC*, ale berezia, 2004ko iraila, 73. or.).

Eta baldintza horietan film luzeen produkzio kopurua zertxobait erreperatu baldin bada ere, euskal zinemagintzaren egoera ekonomiko orokorrak ez du horregatik hobera egin. Enpresa eta finantzaketa aldetik, lehengo lepo beretik du burua euskal zinemagintzak: enpresa txikiak eta kapitalgabeak, derrigorrezkoa dutenak aurretiazko diru laguntza filmak produzitzeko. Eta aurretiazko laguntza izanda ere gorriak ikusten dituztenak produkzioa aurrera ateratzeko, ez badituzte gutxienez bi administra-

zioen diru laguntzak jasotzen edota haiei telebista baten eskubide erosketa batzen.

Euskal Herriko zinemagintzarentzako «impasse urteak» bezala definitu daiteke orduan 1996.etik honako aldi hau: Eusko Jaurlaritzaren sustapen sistema berrantolatzeke ahalegina nabarmena izan da, baina hartara eskaintako baliabideak apalegiak izan dira; ETB berriro hurbildu zaio Euskal Herriko zinemagintzari baina ez da prest agertu harekin konpromiso larriegirik hartzeko. Hartara, paradoxikoki ikus daiteke dena aldatu bada ere azkenean guztiak berdin samar jarraitzen duela. Eta ondorioak ez dira bakarrik maila ekonomikoan nozitu; baita maila kulturalen ere. Izan ere urte hauek ez dute balio izan Euskal Herriko zinemagintzak garai batean izan zuen erreferentzialtasun kulturala berreskuratzen hasteko.

Eta hemendik aurrera?

Eusko Jaurlaritzak neurri berriak luzatu ditu aurten, helburua dutenak ekoizleei errazago egitea maileguak lortu eta aurrealmentako kontratuak deskontatzea. Baina gauzak aldatzen ez badira, oso eragin eskasekoak izan daitezke helburu horrekin mugitu diren 10 milioi euroak, zinemaren kasuan, behintzat, ezer gutxi baitute deskontatzeko produkzio-etxeek. Kulturaren Euskal Plana ere oso epela da ETB eta haren diru sarreraren %5 inbertitu beharrezkin, araua pixkanaka-pixkanaka betez joatea besterik ez baitio agintzen. Horrela, bada, ez dirudi, tamalez, Euskal Herriko zinemagintzaren egoera ekonomikoa asko aldatuko denik datozen urteetan.

Okerrera ere egin dezakeela aurreikus daiteke, ikusentzunezkoen Liburu Zuriaren arabera antolatzen ari den instituzionalizazioak hartu duen norabideari erreparatzen badiogu behintzat. Izan ere, eratu berriak diren «Cluster»-a eta erakunde-arteko koordinaziorako IKEBATZ erakundeek gehiago dirudite ETBk sektorea bere beharretara berrantolatzeko erabiliko dituen tresnak bertako eragileen arteko

s a reak ezarri eta kontsentsuak bilatzeko eta lantzeko baliabideak baino.

Historia ekonomiko labur hau ikusita, esan daiteke, paradoxikoki, Euskal Herriko zinemagintzaren arazo larriena ez dela, hain zuzen ere, ekonomikoa. Haren arazo nagusia dela instituzionalizatu gabe dagoela; baina faltan duen instituzionalizazioa, batez ere, kulturala dela. Haren arazo larriena dela oraindik ez dela erabaki zinema gure kultur sistemaren funtsezko osagaia dela eta babes sistema oso eta eraginkor bat behar duela. Zinemagintza ikuspegi horretatik pentsatzen hasita bakarrik gainditu ahalko da gaur egun jasaten duen utzikeria eta pentsatu ahal izango dira beharrezkoak dituen produkzio eredu propio eta jasangarriak, non euskarari gaur arte izan ez duen lekua egin ahal izango zaion. Bestela jai daukagu.¶